

Baiona, 2026ko apirilaren 10^a

**Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak
Iparralden euskara sustatzeko 2,47M euroko fondoa eratuko dute aurten,
iaz baino 540.000 euro gehiago**

- **2025-2029 epealdirako esparru-hitzarmenaren baitan, 2026ko programa sinatu dute gaur, lankidetzaren lan-ildoak eta diru-ekarpenak zehaztuz.**
- **Ipar Euskal Herriko eragile pribatuen lana diruz laguntzeaz gain, bi erakundeek elkarrekin lanean jarraituko dute hainbat gai eta egitasmoren inguruan, helduen euskalduntzea, euskararen adierazle sistema, inkesta soziolinguistikoa edo hizkuntza teknologiak, besteak beste.**

Aitor Aldasoro, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordea eta Maider Behoteguy, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) lehendakariak euskara elkarlanean sustatzeko erakunde bien konpromisoa berretsi dute gaur, Baionan egindako ekitaldi batean.

2025-2029 epealdirako hitzarmen markoaren barruan, gaurko ekitaldian 2026rako lankidetzaren lan-ildoak ezagutzera eman dituzte eta, horrekin batera, erakunde bien diru-ekarpena zehaztu dute. Batetik, 2026 urtean zehar elkarlanean garatuko diren egitasmoak zehaztu dituzte; bestetik, erabaki dute 2.470.000 euro bideratzea Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragile pribatuen lana diruz laguntzera, iaz baino 540.000 euro gehiago.

Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan egindako aurkezpen honetan **Aitor Aldasoro** sailburuordeak azpimarratu du, "euskararen jauzia elkarrekin eman beharrekota dela, komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa baita eta jauzi hori gauzatzeko borondatea funtsezkoa den arren, baliabide egokiak izatea ere beharrezkoa da". Horrez gain, adierazi du Eusko Jaurlaritzak erabaki duela "lankidetzaren fondoa ekarpena handitzea Iparraldeko eragileen lana sustatzeko"; horrela, 500.000 euro jarriko ditu Jaurlaritzak, iaz baino 100.000 euro gehiago.

Bestalde, **Maider Behoteguy**-k lankidetzaren honen garrantzia azpimarratu du: "denboran zehar irauten duen mugaz gaindiko lankidetzaren honek, Eusko Jaurlaritzak eta EEPri esperientziak partekatuzeko, hizkuntza politiken osagarritasuna indartzeko eta euskararen alde modu koordinatuan aitzinatzeko aukera ematen dio". EEPko lehendakariak adierazi du ere "2026an lankidetzarako fondoaren indartzea dinamika partekatu horren baitan kokatzen dela, eta bi erakundeengaiamendu zehatza erakusten duela, euskararen transmisioan eta erabilpenean funtsezko rola betetzen duten Ipar Euskal Herriko eragileak laguntzeko." Hala, Euskararen Erakunde Publikoak 1.970.000 euro jarriko ditu aurten fondoan, iaz baino 440.000 euro gehiago.

ESPARRU-HITZARMENA

Gaur aurkeztutako dokumentua lotua da 2025eko apirilaren 4an sinatutako 2025-2029 epealdirako esparru-hitzarmenari. 2007an hizkuntza politika gaietan bi erakundeen arteko lankidetzaren jarraitua abian jarri zenetik bosgarren akordioa da gaur Baionan sinatu dena. Lankidetzaren marko horren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak euskararen gaineko hizkuntza politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea berretsi dute.

Hitzarmen markoak elkarlanerako bost arlo zehazten ditu: (1) euskararen transmisioa, (2) hizkuntzaren presentzia eta erabilera; (3) hizkuntzaren kalitatea, (4) hizkuntzaren aldeko motibazioa eta azkenik, (5) euskararen eragileen arteko zubiak eraikitzea.

Hitzarmen marko honek lankidetzarako testuingurua definitzen du eta lankidetzaren urteroko zehazten da programa baten bidez.

2026KO PROGRAMA

Dokumentu honek, alde batetik urtean zehar elkarlanean garatuko diren egitasmoak zehazten ditu. Aurten elkarlanean eramango diren lanak honakoak dira:

1. Helduen euskalduntze-alfabetatzea.

Hizkuntza-gaitasunaren egiaztagiriaren baliokidetzan mugari garrantzitsua ezarri da, 2023ko apirilaren 18ko dekretutik aurrera EAEk Euskararen Erakunde Publikoaren ziurtagiri guztiak automatikoki aitortzen baititu, herritarren bidea errazteko eta aitortzak argiago eta erabilgarriago bihurtzeko helburuarekin; aldi berean, helduen euskalduntzerako baliabide eta tresnei dagokienez, azken urtean elkar ezagutzeko eta informazioa trukatzeko urratsak eman dira, eta 2026an lankidetzaren hori indartu nahi da garatzen diren politikak hobeto ezagutzeko, berrikuntzak partekatzeko eta bereziki Euskararen Erakunde Publikoaren esku-hartze estrategia elikatzeke; ildo horretan, aipamen berezia merezi du INGURA euskara online ikasteko ingurune digitalak, 2026an zehar lanean jarraituko baita Ipar Euskal Herriko ikasleen beharretara egokitzeko, Eusguneak proiektuaren baitan eta Poctefa programaren laguntzarekin.

2. Euskararen Adierazle Sistema eraikitzeke elkarlana.

Eusko Jaurlaritzak eta EEP adostu dute elkarrekin sortutako adierazle sistemaren garapena elkarrekin jarraitzea, eta proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazle egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz. Bestalde, EAS webgunea elikatzeke lanek ere jarraituko dute.

3. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuen arteko partaidetza teknikoak:

Itzultzaile neuronalaren alorrean, 2026an bi erakundeek elkarlanean jarraituko dute euskara ↔ frantsesa Ituzli itzultzaile neuronalak hobetzen, corpusak sortzen dituzten eragileekin lankidetzaren sustatuz eta euskararen banku terminologikoa elikatuz; aldi berean, HABE Liburutegiaren bidez, teknikarien arteko harremanak sendotzen ari dira.

4. VIII. inkesta soziolinguistikoa:

Inkesta soziolinguistikoa dagokionez, 2026an galdetegiak prestatuko dira, lagina definitu eta osatuko da; landa-lana antolatuko eta bideratuko da, eta, azkenik datuen ustiapena egingo da.

DIRU EKARPENA:

Bestetik, Ipar Euskal Herriko euskalgintzari loturiko **eragile pribatuen lana diruz laguntzeko diru-ekarpena zehaztu da**. Aurten 2.470.000 euro izango dira horretarako; Euskararen Erakunde Publikoak 1.970.000 euro jarriko ditu, eta Eusko Jaurlaritzak 500.000 euro. Lankidetzarako aurrekontu hori bi multzotan banatuko da:

- Hitzarmen baten bermea duten erakundeen artean 2.300.000 euro banatuko dira. Multzo honetan sar daitezkeen eragile pribatuek beren urteko jarduerari loturiko dirulaguntza bat jasoko dute, hitzarmen baten bitartez.
- Bigarrenik, 170.000 euro jarriko dira dirulaguntza deialdi baten bitartez eragile pribatuen euskarari loturiko proiektuak laguntzeko.

AURREKO URTEETAN

Dirulaguntzen banaketaren inguruko erabakiak udan emanen dira. Iaz, hitzarmen baten bermea duten 14 eragile pribatuen lana diruz lagundu zen, eta horrekin batera, Hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren bidez beste 36 proiektu lagundu ziren.

Programa honen izenpetzearekin batera ere, bi partaideek antolatu 2026ko Hizkuntza Jarduera Proiektu deialdia irekitzen da, eragile pribatuek euskararen transmisioaren eta erabilpenaren arloan garatzen dituzten ekimenen laguntzeko.

Hizkuntza Jarduera Proiektu Deialdia 2026

Hizkuntza jarduera proiektu deialdia Ipar Euskal Herrian euskararen transmisioaren eta erabileraren alde lan egiten duten eragile pribatu guztiei zuzendua da.

Dirulaguntza eskaerak EEPren dirulaguntzen atariaren bidez egin behar dira, www.mintzaira.fr webgunean. Deialdiaren araudia eta informazio guztia bertan kontsulta daitezke.

- Dirulaguntza eskaerak egiteko azken epea: **2026ko maiatzaren 7a**
- Dirulaguntza eskaera txostenen azterketa: 2026ko maiatz/ekainean
- Erabakien zabaltzea: 2026ko ekaina bukaeran